



LABANA ETA ORBANA

arte grafikoaren esperimentazio tailerra

LABANA ETA ORBANA

- > Hasiera-data: 2020ko irailaren 22a
- > Amaiera-data: 2020ko urriaren 31a
- > Tokia: Dinamo Sormen Gunea, Azpeitia (Gipuzkoa)
- > Ordutegia: asteartea: 18:00-20:00 + larunbata: 9:00-13:00
- > Izaera: Presentziala
- > Ordu kopurua: 36 ordu
- > Matrikula-prezioak: Soldatadunek: 160€, Soldatagabeek: 80,00€
- > Matrikula-eparearen hasiera: 2020ko uztailearen 9a
- > Matrikula-eparearen bukaera: 2020ko irailaren 9a

Irudiak dena hartu du aspaldian: dena da irudia, eta denean dago. Irudiak sortzea inoiz baino errazagoa da, auskalo zenbat egiten ditugun egunero, ohartu gabe; prozesua azkarra da, automatikoa kasik. Dinamoko irudiaren eremua automatismo hori deseraikitzeke lekua da, eraikiz deseraikitzeke, prozesua aztertzeke, moteltzeke, geldotzeke, gelditzeraino. Irudiaren barrunbeetan arakatzeko, hankaz gora jartzeko, mundua bere horretan emango duten irudiak baino irudia bere horretan emango duen mundu bat egiteko.

Lantegi horretan urratsak ematen jarraitzeke da LABANA ETA ORBANA, arte grafikoaren esperimentazio tailerra, Alaitz Alberdik eta Joseba Agirrezabalagak emango dutena.

Paradoxa badirudi ere, gaur inoiz baino beharrezkoagoa (eta zailagoa) da irudi bat sortzea, eta zer esanik ez iruditeria bat sortzea. Garai eta leku bateko jendeari zer edo zer esango diguten irudiak sortzea da zaila, eta horregatik beharrezkoa. Irudiaren gainean hausnartzea ezinbesteko bihurtu zaigun bezala. Irudia tresna potentea da, izugarri indartsua, eta irudiaren ahalaz gogoeta egitea tokatzen zaigu, baina baita irudiaren azalaz ere: nola egiten da irudi bat, nola eraikitzen, nola irakurtzen, zer ikusten dugu hor... Eta nola jartzen dira irudiak zirkulazioan, non galtzen dira, non pausatzen, non eusten diote denboraren joanari, nora joaten dira inork ikusten ez dituenean...

Irudi batekin erakutsi egin dezakegu, iradoki egin dezakegu, baina baita ezkutatu ere. Irudi batekin kontatu egin dezakegu, eta irudi sorta batekin zer esanik ez. Zer kontatzen dugu irudiekin? Nola kontatzen dugu irudiekin?

Galdera hauei guztiei erantzuna ematen saiatuko gara tailer honetan ere, eginez, probatuz, teknika menderatu beharreko zerbait bezala hartu beharrean mugak esperimentaziorako akuilu hartuta, eta akatsa bidelagun, prozesua motelduz eta urrats bakoitzaren jakitun izanda.

Serigrafia, linografia eta beste arte grafiko batzuk aztertu, ikasi eta probatzeko aukera izango dugu, beti ere teknika menderatzea baino irudiak sortzeko prozesuaz kontzientzia hartzea xede.

HELBURUAK

- > Arte grafikoen aukerak aztertu, ikasi eta probatzen hastea.
- > Irudiak sortzen, desegiten, irakurtzen eta erabiltzen ikasten hastea.
- > Irudien gaineko begirada kritikoa hartzea eta trebatzea.
- > Irudien bidez kontatzeko tresna propioak garatzea.
- > Proiektu propio nahiz kolektiboak gauzatzea.

DINAMIKA ETA METODOLOGIA

Iraupena eta egutegia

- > 6 asteko iraupena:
 - 2020ko irailaren 22tik urriaren 31ra.
- > Asteartero: 18:00etatik 20:00etara.
- > Larunbatero: 9:00etatik 13:00etara
 - * Parte hartzaileek, tailerreko orduetatik aparte, lanarekin jarraitzeko aukera izango dute Dinamoan.

Egitura

- > Tailerra **Alaitz Alberdik** eta **Joseba Agirrezabalagak** eskainiko dute.
- > 15 bat laguneko taldea izango da eskolak jasoko dituenak.
- > Eduki hauek landuko dira bost hilabete zehar:
 - Arte grafikoen eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea.
 - Irudien sortze prozesuaz kontzientzia hartzea.
 - Arte grafikoen lanean hastea.
 - Teknika muga baino akuilu hartzea, akatsa baliatzea.
 - Irudiari buruzko aldizkari bat egiteko lehen pausoak ematea.

NORI ZUZENDUA

- > 16 urtetik gorakoei.
- > Zerbait kontatzeko duenari.
- > Arte grafikoen munduan sartu nahi duenari.
- > Sormenean irudien bitartez murgiltzen ausartzen denari.

IZEN EMATEA

- > Epea: 2020ko uztailaren 9tik irailaren 9ra
- > Izen emate orria: <https://forms.gle/ozfHFabjKQMwBb5w8>
- > Zalantzak argitzeko, harremanetarako: idatzi dinamoa@dinamoa.eus helbidera edo deitu 635 738 760 telefonora.

JAKINGARRIAK

Kokapena. Dinamoaren sormen guneko Irudiaren Eremuan du habia Hitzaren Eskolak, Azpeitiko kultur dinamika oparoaren baitan.



DINAMOA
SORMEN GUNEA

www.dinamoia.eus
dinamoia@dinamoia.eus



Antolatzailea:

Azpeitiko
Kultur
Mahaia

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

 **azpeitiko dala**
denon artean

Laguntzaileak:

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
Departamento de Cultura
Departament d'Ensenyament
Departament de Promoció Cultural

 **Gipuzkoako**
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa